

## **EUSKO IKASKUNTZAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA IRITZI PUBLIKOAREN AURREAN 1994ko AZAROAREN 19an NAFARROAKO JUSTIZIA NAGUSI T.G.eko ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ARETOAK EMANDAKO EPAIARI BURUZ**

Ez dagokie ohar hau sinatzen dugun Erakundeoi oraino irmoa ez den Epaia-  
ren, Auzitegi Gorenaren aurrean kasasiaz errekurritua baita, balioztatze juridikoak egitea.  
Hala eta guztiz, euskararenganako sentiberatasuna dutenen artean Epaia horrek sortarazi  
duen gizarte-asaldura larriaren aurrean eta hartan Nafarroako berezko hizkuntza bati  
ematen zaion trataera laidogarria ikusirik, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari pro-  
testa bat egiteko beharrean aurkitzen gara, euskararen eskubidean babesteko eginbeharra  
duten Erakundeak garez (Eusko Ikaskuntzaren Estatutuak 2. art.; Euskararen Erret  
Akademia Euskaltzaindiaren aitortenezko E.D. 573/1976, 4.8 art.), eta hartarako on-  
doko arrazoieta oinarritzen gara:

1. Ignacio MERINO ZALBA Magistratua txostengile den Epaian esaten denez,  
Iruñean ez dago "bertan sorturiko euskaldunik", datu guztiz faltsua dena zeren eta hiriko  
euskaldunen kopurua hamarnaka milakoa (35.000) baita, estatistika ofizialen lekuko-  
tasunaren arabera.

2. Epaia horretan erantzen da "euskara hutsezko irriti programazio bat kaltegarri  
litzateke kultur garapen orokorrerako eta pertsona gehienentzat" bai eta "baztergarria  
gehiengoarentzat gutxiengoarekin alderatuz". Seta okerreko iritziak, gehiengoak gaz-  
telaniaz baizik aritzen diren 19 irriti bere esku dituela eta gutxiengoak batto ere ez duela  
kontuan hartzen ez dutenak.

3. Irratien kudeaketarako emakida, horren erabakia hemen izendatuki aipatzen den  
epaia ekarri zuena, arautzen zuten oinarrietan argiro adierazitakoaren arabera, "Nafa-  
rroako balio linguistikoak sustatu eta indartzeko konpromezua beregain hartuko duten  
proiektuak begi onez ikusiko ditu" (Foru Dekretua, 37/1990, 4.1 art.). Baloratzeko iriz-  
pide hori, alabaina, ez da ezertarako kontuan hartu emakidak erabakitzerakoan, ez eta  
aztertzen ari garen Epaian, eta hori guztia LORAFNA edo Autonomi Estatutuak euskara  
Nafarroako berezko hizkuntza aldarrikatzen duela jakinez.

4. Orobat, 1986ko abenduaren 18tik indarrean dagoen Nafarroako Euskararen Le-  
geak 27.1 artikuluan xedatzen duenez "Administrazio Publikoek bultzatuko dute eus-  
kararen mallaz mallako presentzia komunikabide sozial publiko edo pribatuetan. Ho-  
rretarako eta komunikabideek euskara gero eta gehiago eta ohizko moduan erabil  
dezaten, Nafarroako Gobernuak ekonomi eta materiale laguntza-planak gauzatuko ditu".  
27.2 artikulua ere ildo beretik mintzo da, "Foru Komunitateak gestionatzen dituen te-  
lelibista eta irriti emisora eta gainerako komunikabideetan, Nafarroako Gobernuak eus-

kararen presentzia egokia begiratuko du". Argiro ikus daitekeenez, printzipio arauemaileok ez dira ezertan kontuan hartu, edo ez dira kontsultatu ere egin, aipatzen ari garen epaian.

5. Gainera, esan beharra dago Konstituzioak 20.3 artikuluan "gizartearen aniztasunarekiko" begiramenari xedatzen duela, eta izendatuki ezein erakunde publikoren mende dauden gizarte-komunikabideetan "Espainiako hizkuntzekiko" izan beharreko begiramenari, eta hori gure iritziz eta epailetzari zor zaion begiramen guztiarekin, erabat juridikoaren arauak, bai eta haien bidezko euskarriak izan behar duten arau juridikoak —Konstituzioa, Euskararen Legea, Foru Dekretua— alde batera uzten diren, haien ordeztasun ideologikoez kutsaturiko iritzia emanez, euskal hizkuntzarekiko eta sentiberatasun demokratiko xumeenarekiko mespretxua erakusten dutenak. Hori guztiagatik organo goren horrengana jotzea noraezekoa dugu.

6. Arazo honi buruz, oroitu beharra dago Euskaltzaindiak 1992ko apirilaren 24an plazaratu zuen protesta-adierazpena, Nafarroako Gobernuak Frekuentzia Modulatuan aritzeko baimenduriko 7 irratietatik euskal irratientzat bat ere ez zuela eman jakin ondoren.

Azaldu denaren ondorioz, Adierazpen honen sinatzaile diren bi Erakundeok, epaileei zor zaion begiramenari kalterik egin gabe, Auzi Aretok emandako Epai iraingarri eta bidegabe hori bete-betean arbuiatzen dute, eremu urriko hizkuntzen babesari begira Espainiako Estatuak sinatu dituen nazioarteko itunen (NBE, Europako Parlamentua, etab.) erabateko mespretxua eta soziolinguistikari buruzko dokumentazioan edo zientzia aholkularitzan guztizko gabezia adierazten baitu.

Aldi berean, Auzitegi Gorenak gure jarrerari eusten dioten arrazoiak aintzat hartuko dituelako eta aipatu Aretok egindako huts gaitza zuzenduko duelako uste osoa adierazten dugu.

Iruñea, 1995.eko urtarrilaren 13an

## **DECLARACION DE EUSKO IKASKUNTZA/SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS Y EUSKALTZAINDIA/REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA ANTE LA OPINION PUBLICA NAVARRA EN RELACION CON LA SENTENCIA DE 19 DE NOVIEMBRE DE 1994 DE LA SALA DE LO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO DEL EXCMO. TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA DE NAVARRA**

No corresponde a las Instituciones que suscriben la presente nota hacer valoraciones jurídicas de una Sentencia en principio no firme, ya que ha sido recurrida en casación ante el Tribunal Supremo. Sin embargo, ante la grave alarma social creada entre las personas con sensibilidad hacia el euskara y dado el ignominioso tratamiento dispensado en dicha Sentencia a una de las lenguas propias de Navarra, nos vemos en la obligación de elevar una protesta formal ante el Consejo General del Poder Judicial, en tanto Instituciones que deben velar por los derechos de la lengua vasca (Estatutos de Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos, art. 2; R.D. 573/1976 de reconocimiento de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia art. 4.8) y hacerlo con fundamento en las siguientes razones:

1. En la Sentencia, cuyo ponente es el Magistrado Ignacio MERINO ZALBA, se afirma que en Pamplona no existe “ningún vasco-parlante de origen en la ciudad”, dato evidentemente falso ya que su cifra se eleva a varias decenas de miles (35.000), tal como lo atestiguan las estadísticas oficiales.

2. Se añade en dicha Sentencia que una programación de radio “sólo en euskara pudiera considerarse perjudicial para el desarrollo cultural general y de la generalidad de las personas”, y sería “discriminatorio para la mayoría de los ciudadanos en relación con la minoría”. Juicios de valor contumaces que además desconocen en dicha argumentación que la mayoría tiene a su disposición 19 emisoras que emiten de forma exclusiva en lengua castellana y la minoría no tiene ni siquiera una que emita en euskara.

3. En las bases que regulaban la concesión para la gestión de las emisoras de radiodifusión, cuya ejecución tiene por causa la sentencia comentada explícitamente, se determinaba que se “valorará positivamente los proyectos que asuman el compromiso de fomentar y potenciar los valores lingüísticos de Navarra” (Decreto Foral 37/1990, art. 4.1). No obstante se hace caso omiso de dicho criterio valorativo tanto en la ejecución de las concesiones como en la Sentencia analizada, y todo ello aún a sabiendas de que la LORAFNA o Estatuto de Autonomía declara el euskara como lengua propia de Navarra.

4. Asimismo, la Ley del Vasculence de Navarra en vigor desde el 18 de diciembre de 1986 establece en su art. 27.1 que “Las Administraciones Públicas promoverán la

progresiva presencia del euskara en los medios de comunicación social públicos y privados. A tal fin el Gobierno de Navarra elaborará planes para que se emplee el euskara de forma habitual y progresiva". Incluso el art. 27.2 en este mismo sentido declara que "en las emisoras de televisión y radio y demás medios de comunicación gestionados por la Comunidad Foral, el Gobierno de Navarra velará por la adecuada presencia del euskara". Principios normativos evidentemente ignorados, cuando no consultados, en la sentencia comentada.

5. Hay que añadir que, la Constitución en su art. 20.3 dispone como derecho fundamental el respeto "al pluralismo de la sociedad" y explícitamente "a las diversas lenguas de España", en los medios de comunicación social dependientes de cualquier ente público, lo que con todos los respetos a la judicatura entendemos que viola flagrantemente la Sentencia de 19 de noviembre de 1994, ya que en ella se omiten los criterios de valoración jurídica y, por supuesto, las normas jurídicas que rectamente le deben sustentar —Constitución, Ley del Vasuence, Decreto Foral— para por el contrario, dar rienda suelta a un juicio teñido de valoraciones ideológicas, despectivas hacia la lengua vasca y hacia un mínimo de sensibilidad democrática, por lo que se nos hace obligada elevar esta protesta ante tan alto órgano.

6. Sobre este asunto, es preciso recordar que la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, con fecha 24 de abril de 1992 hizo pública una Declaración de protesta, tras conocerse que de las 7 concesiones de emisoras de Frecuencia Modulada aprobadas por el Gobierno de Navarra ninguna de ellas fuera otorgada a radios vascofonas.

Por todo lo expuesto, las dos Instituciones firmantes de esta Declaración, sin perjuicio del respeto debido a los jueces, rechazan abiertamente la injuriosa e injustificable Sentencia de la Sala de lo contencioso que denota un total desprecio de las convenciones internacionales suscritas por el Estado Español respecto de la protección de las minorías lingüísticas (ONU, Parlamento Europeo, etc.) y una completa falta de documentación o asesoramiento científico en materia sociolingüística.

Al mismo tiempo, manifestamos completa confianza en que el Tribunal Supremo atenderá las razones que abonan nuestra postura y corregirá el grandísimo error cometido por la citada Sala.

Pamplona, 13 de enero de 1995